



EMETERIO ZALDIVIA ▶ IRAKASLE JUBILATUA

## «Irakaslegoa izan da protagonista euskara sustatzeko proiektuan»

**TOLOSA** ▶ 34 urtez izan da irakasle eta zuzendari Laskorain Ikastolan

**OMENALDIA** ▶ «Euskara eta ikastolaren aldeko bere lana goraiatu dute» ▶ 3



Emeterio Zaldivia tolosarra. N. LATABURU



N. URBIZU

## Maite Gurrutzagaren lehen ilustrazio lana

**AMEZKETA** ▶ Txindoki tabernan dago ikusgai hilaren 7ra arte; «Gaztetxoentzat baino, nahiago dut helduentzat ilustratzea», dio ▶ 5

VILLABONA ▶

## Eresargik bi lehiaketetan hartu du parte

Ozkabartekoan 3. postua lortu dute ▶ 4

JOSE LUIS ARRIZURIETA ▶ ENTRENATZAILEA

## «Futboleant gauzak asko aldatu dira azken urteetan»

Leitzarrak bigarren urtea du Aurrera taldeko entrenatzaile bezala ▶ 7



TOLOSA ▶ GIZARTEA

# Hemen da berriro jaiotza lehiaketa

Bihar, errege kabalgata amaitzean egingo dute sari banaketa, Zerkausion

## ERREDAKZIOA

San Bernardo, Ttentek, Kazkabarra, kale hezitzaileak eta Kiriñio taldeek antolatuta, jaiotzen lehiaketa egingo dute Eguberri hauetan. Urtero antolatzen dute lehiaketa hau, eta gutxieneko baldintza batzuk ezarri dituzte oraingoan ere lehiaketan parte hartu ahal izateko.

Norgehiagokan Tolosako gazteek hartu ahal izango dute parte. Hauek, ikastetxearen edo taldearen izena eta orde-

kari baten izena eman beharko dute. Txapelketan parte hartu nahi dutenek gaur izango dute azken aukera, eta arratsaldeko zazpiak baino lehen egin beharko dute. Hauek Kultur Etxeko bulegora jo beharko dute. Hala, izena eman duten jaiotza guztiek biharko errege kabalgatan parte hartuko dute. Horretarako Santa Klarara joan beharko dute 18:30ak baino lehen.

Jaiotza irabazlearen egileak 90 euro eraman ahal izango ditu. Bigarrenak, 60; hirugarre-



Errege kabalgatarekin batera ikusgai izango dira jaiotzak. J. ASTIBIA

nak 50 eta laugarrenak 30. Sari banaketa Zerkausion burutuko dute, erregeak bertan dauden bitartean.

Errege kabalgata amaitu eta Meltxor, Gaspar eta Baltasar Errege Magoak bertan dauden bitartean ordu zehatzik ez dute adierazi Udaleko Gazteria sailekoek. Bestalde, antolatzaileek adierazi dutenaren arabera,

## SARIAK ▶

1. 90 euro.
2. 60 euro.
3. 50 euro.
4. 30 euro.

«Errege kabalgata amaitu ondoren, eta sari banaketa burutu artean, lehiaketan parte har-

tzen duten jaiotza guztiak bertan izango dira», herritarrek ikus ditzaten.

Epaimahaikideek jaiotza egiteko eskulanaren trebetasuna, orijinaltasuna... hartuko dituzte kontuan. Jaiotzen lehiaketa prest da beraz, eta eskualdeko haurrei eta gaztetxo-  
ei lanean hasteko garaia heldu zaie.

ORENDAIN ▶ POLITIKA



## Eguberri bezperan ere presoak gogoan

**Erredakzioa** ▶ Orendaingo ezker abertzaleak, abenduaren 24an, Eguberri bezperan, Espainia eta Frantziako kartzelatan sakabanatuta dauden euskal preso politikoak gogoan hartuz, hauen gain dagoen errepresio eta sakabanaketa salatuzko kartzela erreketak simulazioa eta kontzentrazioa egin zuten. Bertan, Haimar Altuna preso politikoak herritarrei bidalitako gutuna ere irakurri zuten. HITZA

ORENDAIN ▶ GIZARTEA



## Denak batera, Olentzerori abestuz

**Erredakzioa** ▶ Haur, gaztetxo nahiz helduak, denak batera atera ziren joan den igandean abestera. Ohiturari jarraituz Orendaingo baserriz baserri eta etxe etxe ibili ziren herritarrek. Bildu zuten dirua hiru zatitan banatu dute, lehenengoa herriko gazteentzat izango da; bigarrena, Etxerat elkartearentzat, eta azkena, herriko ekintzarako bideratuko dute. HITZA

iragarki laburrak ▶

**Basabi Inmobiliaria**  
Pablo Gorosabel, 40  
Laitua - 7. bulegoa  
20400 TOLOSA  
Tel. eta Fax: 943 65 55 87  
mng. 669 368 994

**Alegia.** Eraikuntza berriko pabilioiak, 350m2etatik hasita.

**Anoeta.** 90 m2ko etxebizitza salgai, kanpora begira eta berritu beharrekoa.

**Belauntza.** Bifamiliarra, bi solairurekin eta 270 m2ko lursailarekin.

**Belauntza.** Pabilioia alokairuan, bulegoak, komunak eta abar.

**Berastegi.** Bi solairuko pabilioia alokairuan, 700 m2 solairu bakoitzeko.

**Berastegi.** Famili bakarreko etxea salgai, 4.000 m2ko lursailarekin batera.

**Berrobi.** Behe solairuko etxebizitza, 50 m2koa. 117.200 euro.

**Irura.** San Migel plaza. Atikoa. 76 m2 erabilgarriak.

**Irura.** Eraikuntza berriko etxebizitza eta apartamentua salgai garaje eta trasteroarekin.

**Irura.** Etxezarreta; 3 logela, komuna, bainugela, altzariekin, garajea eta trastelekua duen etxebizitza.

**Tolosa.** Errementari kalean etxebizitza salgai. Eraberritua. 2 logela, 24 m2ko egongela, bainugela eta sukaldea.

**Tolosa.** Santa Klara, 90 m2ko etxebizitza salgai. 4 logela, sukaldea, egongela eta bainugelarekin.

**Tolosa.** San Esteban auzunean, kanpora begirako 100 m2ko etxebizitza salgai. Berritu beharrekoa.

**Tolosa.** Ugaran Goena, berritu

beharreko baserria salgai. 3 solairu, 110m2 bakoitzeko.

**Tolosa.** San Frantzisko, 75 m2ko atikoa salgai. Eraberritzeko.

**Tolosa.** Belate. Trasteleku berriak, ordaintzeko erreztasunekin. 9.480 eurotik aurrera.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. 50 m2ko bulegoa alokairuan.

**Tolosa.** Maituna zaharra, 15 garaje berri eta ibiak, 30m2tik aurrera. Karga jasogailuekin sartzeko.

**Eraikitzeko.**

EMETERIO ZALDIVIA ▶ IRAKASLE JUBILATUA

IÑIGO TERRADILLOS

Ikastolaren sorrerako garai zailenak gertutik ezagutu zituen Emeterio Zaldiviak (1939, Tolosa). Urte haietan egindako lanek, ordea, bere fruitua eman dute. Madrilen burutu ikasketak eta 34 urte egin ditu tolosarrak Laskorain Ikastolan, irakasle eta zuzendari bezala, eta epe horretan «euskararen alde eta ikastolaren alde» egindakoa gogoratu eta goraiatu nahian omenalditxo egin zioten Laskoraingo irakasleek zein gurasoek iragan abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean antolaturiko ekitaldien baitan.

**Laskorain Ikastolaren sortzaileetakoa eta euskararen alde lan handia egindakoa zara.**

Mitoak sortzen dira pertsonekin, eta nire kasuan badago horrelako zerbait. Ni ez naiz sortzaileetakoa. Ni ikastolan hasi nintzenerako bazeramatzan 3 edo 4 urte, eta une okerrenak beharbada ni sartu nintzenerako pasata zeuden. Sortzaileetan, Begonia izan zen aipatzekoa beste hainbat irakaslerekin batera. Bera irakasle eta zuzendari izan zen. Alde batetik poza ematen du jendeak zuek lan handia egin duzula esatea, baina gero hankak lurrean jarrita pentsatzen duzue besteek bezala egin duzula lan. Gaur egin lan egiten dutenek ere, gu bezalaxe egiten dute, eta askotan ezkutuan pasatzen dira. Gauza da zuzendari bezala urte asko egin nituen, nolabait jendeak pentsatzen duela besteek baino gehiago egin duzula.

**Dona den, zu hasi zinenean ere ezin esan garai errazak zirenik.**

Oso garai zailak ziren. Politika aldetik errepresio handia zegoen hemen, zailtasun handiak zeuden ikastola bezalako erakunde bat aurrera ateratzeko. Gurasoek lan handia egiten zuten eta asko laguntzen zuten eta haiei esker aurrera atera ahal izan genuen.

**Hasiera haietan zein lan-gileen helburu nagusia?**

Helburu nagusietako bat euskararen berreskuratzea izan zen, existitzen eta egiten ez zelako Tolosan, gutxienez, agerian. Ikastolaren sortzaileetako batzuen artean ere erabileren murrizta zen, beraz, pentsa. Gerra aurretik galdua zegoen euskara neurri handi batean, eta ondoren egoera kaxkarragoa zen. Modu guztietara berreskuratu egin nahi genuen, eta buru belarri sartu ginen. Euskararen erabilera sustatzea eta bultzatzea zen gehien kostatzen zitzaiguna, irakastea baino gehiago, urte haietan.

# «Irakaslegoa izan da euskara sustatzeko proiektuaren protagonista»

34 urtez Laskorain Ikastolako irakasle eta zuzendari izan eta gero jubilatua egin da Emeterio Zaldivia tolosarra



N. LATABURU

Hori gaztetxoekin, helduekin, berriz, gaztekerara jo beharra zegoen.

**Pixkanaka euskara berpizten hasi zen.**

Diktaduraren erorketarekin beste aire batzuk sortu ziren, eta aurretik ere bai, helduen gaueko eskolarekin. 70. hamarkadan lehendabizi talde txiki batzuetan ematen ziren gaueko eskolak, eta gerora, 200 bat ikasle izaten genituen. Eskolak ematen genituen egunez gaztetxoentzat, eta gauean, berriz, helduentzat. Jendeak jakin egin nahi zuen, konzientzi maila bat existitzen zen, baina erabileraren aldaketa ematea asko kostatu zen. Benetako aldaketa 80. hamarkadaren erdialdetik aurrera eman zen; ikastolak asko kaleratu zuten euskararen erabilera, ikasleak kalean ere erabiltzen hasi ziren euskara.

**Nola lortzen da hori?**

Erdaraz sustrai sendoak ditu eta beti dauka aldeko eraginak; euskarak berriz, sortu

egin behar ditu, bestela, goitik behera joan daiteke. Euskara sustatzeko proiektuarekin euskara, joko baten bitartez bezala, aldi guztietan present egiten da. Umeari horrela sortzen zaitu berrirerabiltzeko gogoa.

**Zuzendari lanean zer gogoratzin duzu bereziki.**

Zuzendari bezala nire azken zituzte urteak izan ziren politenak

**SORRERAKO GARAI**

«Helburu nagusietako bat euskara berreskuratzea izan zen, Tolosan ez baitzen ia existitu ere egiten»

niretzat, 86tik 92ra bitartekoak; euskara sustatzeko proiektua martxan jarri genueneko garaia, hain zuzen. Ordura arte banuen porrotaren sentsazio handi bat. Baina urte haietan, proiektu hura martxan jartzearekin batera niretzat irakasle bezala, euskaldun bezala eta pertsona bezala urterik gozoe-nak izan ziren. Hala ere, ondorengo urteak ere oso oparok izan ziren.

**Zure lana eskertu nahi izan dute irakasle zein gurasoek.**

Omenalditxo bat egin zidaten Euskararen Egunean ekitaldien baitan. Benetan eskertzen diet guztiei, baina beti ere, kon-tuan izanik benetako protagonista irakaslegoa izan dela. Irakaslegoarekin zordun sentitzen naiz proiektu hori bete-betean onartu zuelako. Toki askotan jarri da martxan, baina Tolosan eman dituen emaitzak ez ditu eman, Tolosako irakasle-goa onartu eta aurrera egin zuelako programarekin. Horregatik izan zen eraginkorragoa. Ondorioz, benetako omenaldia Tolosako Ikastolako irakasle-goa merezi du. Niri egin zidaten, eta eskerrak emateko arrazoiak baino ez dauzkat.

**POLITIKA ▶**

## PSE-EEren egoitzari eginiko eraso gaitzetsi dute

Politika egiten jarraitzea ez diela ezerk eta inork galaraziko esan dute

**ERREDAKZIOA**

Gipuzkoako PSE-EEK Tolosako egoitzak jasan duen eraso gaitzetsi du. Adierazi dutenez, asteartetik asteazkenerako gauean hainbat ezezagunek «Gora ETA» eta «PSOE hiltzaile, PNV laguntzaile» irakur zitekeen pintadak egin dituzte. Eraso hauen aurrean, PSE-EEK azaldu du, ezerk eta inork ez diela sozialistei politika egiten jarraitzea galaraziko; «ez gaitu ezerk eta inork beldurtuko; ez digute galaraziko Gipuzkoako herritarren alde lan egiten jarraitzea».

**KIROLAK ▶**

## Urtezaharreko San Silbestre krosean irabazleak

**ERREDAKZIOA**

Samaniego-Orixek antolatuta, urtero bezala, San Silbestre kros solidarioa izan zen Urtezahar egunean, «partaidetza eta giro apartarekin». Irabazleak ondorengoak izan ziren: Maitane Lizartza, Joanes Garikano, Jone Gomez, Kepa Elizaguirre, Maddi Garikano, Una Arroyo, Ramon Otegi eta Oihane Vazquez.

**iragarki laburrak ▶**

<p><b>SALGAI</b>  <b>Autoa.</b> BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1.995. urtekoa. 153.000 km liburuarekin. 18ko lllantak eta sapaia. Egoera oso onean. 14.000 euro. Telefonoa: 943 65 41 43.</p>	<p><b>Gidariak.</b> Erakunde publikoetarako gidariak behar dira. Interesatuak deitu 943 44 48 66 telefono zenbakira.  <b>Zerbitzaria.</b> Zerbitzaria behar dugu larunbat arratsalderako eta igandegozerako. 650 04 31 39.</p>
<p><b>LANA</b>  <b>Banatzaleak.</b> Baserriko produktuak banatzeko banatzaile bat behar da. 943 68 22 14.  <b>Harreragileak.</b> Erakundeetarako harreragileak behar dira. Telefono zenbakia: 943 44 48 66.</p>	<p><b>ALOKAIRUAN</b>  <b>Tolosan.</b> Partikular batek pisu bat alokatuko luke Tolosan. Interesatuak utz dezatela mezua eta telefono zenbakia, 943 01 62 76 zenbakian. Abstenitu daitezela bitartekariak.</p>

**▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Inkesta.** «Opariak egiten zenbat diru gastatuko duzula aurreikusitu duzu pertsona bakoitzeko Gabon hauetan? 0 eurotik 50 eurora; 50 eurotik 100era; 100 eurotik 150era; 150eurotik gora; Ezer ere ez». Sartu eskualdeko egunkariaren web orrian, eta *inkesta* izeneko atalean eman zure botoa gaiaren inguruan. ▶

## VILLABONA ▶ MUSIKA



Gabon bezperan abesten atera ziren Eresargi abesbatzako kideak. HITZA

## Bi lehiaketetan parte hartu du Eresargik Eguberri hauetan

Villabonako abesbatzak Ozkabartekoan hirugarren postua lortu zuen eta Errenteriakoan ezin izan zuen irabazi

IMANOL GARCIA

Villabonako Eresargi abesbatzak beste urtetan baino Gabon lanpetuagoak izan ditu. Aurten, ohiko Errenteriako txapelketan parte hartzeaz gain, Ozkabarten (Errioxa, Espainia) antolatutako Gabon kanten lehiaketan aritu ziren. Azken honetan hirugarren postua lortu zuten. Errenteriakoan saria bakarrik irabazleari ematen zioten eta billabonatarrek ezin izan zuten eskuratu. Gustura agertu dira abesbatzakoak bi txapelketetan emandako mai-

larekin. Bi ekitaldi horiez gain, Eguberri bezperan abesten atera ziren Amasako inguruetatik.

Lehenengo hitzordua Ozkabarten izan zuten, abenduaren 17an. «Gonbidapena luzatu zuten posta elektronikoz», dio Sofia Quilez Eresargiko kideak, «eta animatu egin ginen parte hartzera». Guztira hamabi abesbatzek hartu zuten parte, bai Euskal Herritik joandakoak eta baita Espainiakoak ere. «Lehenengo aldia zen horrelako lehiaketa batera ateratzen ginela. Horrek ere motibazio

bat suposatzen zuen taldearentzat», dio Quilezek. Bi abesti kantatu behar zituzten, horietako bat gaztelerez. Julien Ezkurraren *Huayno de Navidad* aukeratu zuten eta beste abestia *Horra Mari Domingi*, Jose Mari Usandizagarena. Esan bezala, «gustura» gelditu ziren beraien emandakiarekin eta hirugarren postua eraman ahal izan zuten etxera. «Denboraz justu aritu ginen prestatzeko eta egindakoarekin gustura gelditu ginen», dio Eresargiko kideak. Lehiaketa horretan bertan, Tolosako Hodeitruk

abesbatzak bigarren postua erdietsi zuten.

Gabonetako hurrengo ekitaldia Eguberri bezperan egin zuten. Ohiturari jarraituz, Amasako inguruetan aritu ziren abesten. «Herritarrek erantzun oso ona eman zuten eta bildu genuen dirua Malira bidaliko da, Afrika Elkartasuna taldearen bitartez», diote Eresargitik.

### Parte hartzeko gonbidapena

Beste ekitaldia Errenteriako Gabon abesti lehiaketa probintzian parte hartzea izan zen, aurreko larunbatean. Dagoneko 60. edizioa bete du txapelketa horrek. Federatuen mailan lehiatu zen Eresargi. Ez zuten jakin zer postuetan amaitu zuten, sari bakarra ematen baitute eta ez zen beraientzat izan. «Maila handia izan zen», esan du Quilezek. «Guk gustura gelditu ginen emandako mailarekin». Lehiaketa horretarako bi abesti prestatu behar izan zituzten. Ozkabarten abestutako *Horra Mari Domingi* izan zen bat, eta Francisco de Madinaren *O Eguberri*, bestea.

Lanpetuta izan dira, beraz, Gabonen aurreko asteetan entseguak egiten. Hain justu, lehiaketa hauetarako prestatuta lanak egitea motibazio bat izaten da beraientzat. «Helburu bat izateak lagundu egiten du», dio Quilezek. «Eta aurten, gainera, Ozkabartera joan gara lehenengo aldiz». Proiektu berriei heltzeko asmoa ere badute. Bide batez, gonbitea luzatzen dute abesbatzan parte hartzeko. Edozein da ongietorria, baina batez ere, eta beste hainbat taldeetan bezala, gizonen premia dute.

## VILLABONA ▶

## Kale Nagusiko obren bigarren fasea hasiko da astelehenean

Errebote Plaza eta Subijana etxearen artekoa itxita egongo da une ezberdinetan

ERREDAKZIOA

Kale Nagusia urbanizatzeko eta hobetzeko bigarren faseari ekingo diete astelehenean, hilaren 8an, Villabonako Udalak ohar batean azaltzen duenez. Errebote Plaza eta Subijana etxea bitartean egingo dute eta bertako bizilagunei zein lokaleen jabeek jakinarazi nahi zaie behar teknikoengatik une ezberdinetan tarte hori itxita egongo dela osotasunean edo zati batean.

Obra horiek direla eta, Udalak bizilagunei jakinarazi nahi die zaborrak Katea etxearen (haurtzaindegia) ondoan kokatuko diren edukiontzietan utzi beharko dituztela. Udalak gaineratzen duenez, herritarrek obra horiek sor ditzaketan molestiak ulertuko dituztelakoan dago, «zalantzarik gabe guztion onerako baitira».

ANOETA ▶

## Errepikagailu digitala jarriko dute datorren astean

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak aurreikusituen duenez, datorren astean telebista digitaleko seinale errepikagailua martxan jarriko dute. Era horretan seinale analogikoko emandaldiak behin betirako eten egingo dira eta Anoetan uhin digitala bidezko emandaldia ezarriko dute. Hala, telebista digitala jaso egin ahal izango da. Eguna zehatzago jakitean, Udalak jakinaraziko du.

Jakina denez, uhin bidezko seinale digitala dekodifikatzen duen aparailua eranstea beharrezkoa izango da jasotako seinale digitala analogikoan bihurtu dezan. Dekodifikatzailea behar dutenek, beraz, lehenbailehen eskuratu beharko dute.

**KIMETZ** Zorionak  
GAZTE ARROPA eta  
Uste Berri  
On!  
Nagusia, 23 • TOLOSA • Tel.: 943 67 38 62

**ZOS**  
soinu  
ikastaroa  
Informatika mailaketa  
(Gubasa)  
Grabaketa eta masterizazio  
profesionala  
P.A. eta monitoreak  
Eta abar  
943 65 35 35  
www.soinutek.net




## AMEZKETA ▶ ERAKUSKETA



**Akuarela.** Txindoki tabernan dauden 11 margolan akuarelaz eginda daude. MAITE GURRUTXAGA



**Esaldiak.** Margolan bakoitzak olerkiko esaldi bat dauka, bi ideiak lotuz. M. GURRUTXAGA



**Akrilikoa.** Akrilikoekin egindako margolanetako bat. Maite Gurrutxagaren gustukoenetako bat da, dantzariak azulejoan. M. G.

## MAITE GURRUTXAGA ▶ MARGOLARIA

## «Txikientzat baino nahiago dut helduentzat ilustratzea»

Amezketarrak bere lehen ilustrazio erakusketa egin du

## NEREA URBIZU

Amezketako Txindoki tabernan Maite Gurrutxaga ilustratzaile gaztearen erakusketa dago ikusgai, hilaren 7ra bitarte (Amezketako, 1983).

**Ilustratzailea zara. Gehienetan, beraz, irudiak hitzetara egokitu beharko dituzu.**

Bai, baina ez du zertan. Normalean orain arte ni olerkietan oinarritu izan naiz, olerkiei egin diet irudia.

**Txindoki tabernan ikus daitezkeenak zer dira?**

Akuarelaz egindako marrazkiak, tintak, axotak eta errotu-

ladoreak eta akrilikoak erabiltzen ditut ilustrazioak egiteko. Akuarelak paperean egindakoak dira, eta akrilikoak egindakoak, berriz, egur gainean. 22 lan dira eta denek olerki bati egiten diote erreferentzia, hori baita ilustrazioaren funtzioa: idatziako zerbaitetan du oinarria.

**Amezketan zure lehen erakusketa duzu.**

Bai. Txindoki tabernakoak ezagutzen ditut, proposamena egin nien lekua bera ere atsegina eta aproposa ikusten nuelako; prest agertu ziren eta jarri egin genuen. Ari dira jada

hurrengo erakusketa bat egiteko planeatzen. Jendeari badihuri gustatu egin zaiola.

**Lan gehienetan gizakiren bat agertzen da. Zergatik?**

Hobetoen hauekin adierazten naiz. Gainera, olerki hauetan, zehazki, zentzumenak lantzen dira, eta gizakiekin errazago adierazi daiteke. Saiatzen naiz hori aldatzen eta beste gauzuekin, objektuekin adierazten, eta zailagoa egiten bazait ere, egin izan dut.

**Bartzelonan (Herrialde Katalanak) ikasi duzu, orain han bizi zara. Arrazoren bat?**

Nik Bilbon arte ederretako le-



N. URBIZU

hen lau urteak egin nituen eta azkena Bartzelonan egitea erabaki nuen. Aurten han bizi izan naiz, eta ilustrazioa edo orokorrean irudiarekin lotutakoak ikasi dugunok aukera gehiago dauzkagu. Orain Bartzelonako editorial baten-tzat hasi naiz lanean. Ilustratzaile Katalanen Elkarte Profe-

sionala (APIC) delakoan izena eman nuen eta horren bidez lortu dut lana.

**Zure lanean ez al da ardura handiegia marraztearena?**

Bai. Editorialen arabera ere desberdinak dira ilustrazioak: batzuk sinpleagoak, besteak landuagoak... Niri oraingoan askatasun handia eman didate, ez dut mugarik, baina presioa bai, badago. Dena dela, helduagoentzat ilustratzea gehiago gustatzen zait: marrazkiak egin, baina helduen testuetarako denean, hain zuzen.

**Zer nolako lanak egin dituzu?**

Editorialean lana egiten hasi naiz, baina orokorrean bidea bilatzen ari naiz. Kerobia musika taldearen azken diskoko libretoko irudiak egin ditut, eta orain ipuin baterako ere ari naiz. Ander Fernandezek egindako olerkiak edo Mikel Gurrutxaga anaiak berak egindakoekin aritzen naiz bestela. ◀



60 minutu dituzu doan hitz egiteko; bana itzazu nahi duzun bezala.

Zure semearentzat. Zure nagusiarentzat. Nahi duzunarentzat. Aurtengo Eguberrietan, telefono finkoa Euskaltekin baldin baduzu, 60 minutu izango dituzu estatuko eta nazioarteko finkoetara doan deitzeko. Bana itzazu nahi duzun bezala, eta zoriandu zeure etxeokak.

Eskatu 1717an.

Sustapena Euskaltel Leihoa eta Euskaltel Hautaketako bezeroentzat da, abenduaren 13a eta urtarrilaren 7a bitartean telefono finkoetara egiten diren deietarako. Ez dira sartzen estatuko mugikorretarako deiak, tarifa gehigarrikoak, sare adimendunekoak eta datu-konexioak.

euskaltel  
ZURETZAT

## IBARRA ▶

**Play Stationeko  
2. jokoan aritzeko  
aukera 17:00etan**

Ibarrako Gizarte Zerbitzuak eta kale hezitzaileek antolatuta, Play Stationeko 2. jokoan aritzeko aukera izango da da gaur arratsaldean San Bartolome plazan, 17:00etatik 18:30era, hain zuzen ere. Ekitaldi hau 11 eta 17 urte bitarteko haur eta gazteei zuzendua dago. Antolatzaileek ekitaldian parte hartzeko deia egin dute.

## IBARRA ▶

**Euskara  
Zerbitzuetako  
egutegiak salgai**

Ibarrako Euskara Zerbitzuak, urte berrian sartu garen honetan, 2007ko egutegiak argitaratu ditu nahi duen orok eskuratu ditzan. Interesatuak udaletxean eta Euskara Zerbitzuan jaso ditzakete doan honako ordutegian: 09:00etatik 13:00etara.

## TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112))****Osasuna.**

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
  - ▶ Ambulatorioa, larriald: 461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amaroako dispen.: 672637
  - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ **DYA:** 672536
  - ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

**Garraioak.**

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ **Taxia:** 670420
- ▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

**Besterik.**

- ▶ **Ertzaintza:** 538820
- ▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858
- ▶ **Tolargi:** 650016
- ▶ **Iurramendi egotza:** 670325
- ▶ **Tolosa gasa:** 675320

## GIZARTEA ▶

# Eguberrietako ludotekak haurren topagune bihurtuz

Leaburu-Txarama, Belauntza, Gaztelu eta Orexako 70 haur inguru elkartu dira nor bere herrietako ludoteketan ondo pasa eta lagun berriak egiteko

MADDI SOROA

Gabonak eta Eguberriak; Olentzeroren bisita, opariak eta turroia baino zerbait gehiago ere badira egun berezi hauek, askok eta askok oporrak izaten baitituzte egun hauetan. Helduez gain, gazte txoek eta haurrek ere, urte zaharrari ezezik eskolari ere agur esaten diote egun mordoska baterako.

Aurtengoan, abenduaren 22tik urtarrilaren 7ra arte ez dira eskolara joango haurrak, guztiok hain gogoko ditugun oporrak baitituzte. Gauzak horrela eta egoera zein den ikusita, zer egiten dute gurasoek haurrekin? Bai amek baita aitek ere lan egiten badute, non utzi haurrak? Nork zaindu?

Uli Mankomunitateak erantzuna eman die galdera horiei, haurrentzako ludoteka zerbitzua jarri baitzuen martxan pasa den abenduaren 26an eta hil honen 5era arte zabalik egongo da honako herri hauetan: Leaburu-Txarama, Belauntza, Gaztelu eta Orexa.

Arratsaldeko hiruretatik sei-retara elkartzen dira Orexako haurrak, 13 haur inguru. Gai nontzeko herrietako haurrek goizeko hamarretatik ordu batera dute lagun arteko zita. Leaburun bildu da haurrik gehien, 20, hain zuzen ere. Belauntzan, 17 izan dira ludotekan izena eman dutenak, Gaztelun 11 eta Txaraman, berriz, 7.

Ez da lehen aldia Uli Mankomunitateak haurrentzako ludoteka antolatzen duena. Aitzitik, urte urte eta Eguberrietan ezezik, Aste Santutan eta udan ere haurrentzako ludoteka zerbitzua eskaintzen dute arestian aipaturiko herrietan. Erantzun bikaina duen zerbitzua da gainera, urteak pasa ahala, parte hartzen duten haurren kopurua haziz joan baita.

Ludotekara doazen haur kopuruaren hazkundearen arrazoia argi ez badago ere, esan daiteke, herri txikiak haur kopuruaren igoera izan dela arrazoi nagusietako bat. Bestetik, berriz, argi dago gurasoek geroz eta konfidantza handiago hartzen dutela haurren begiraleekin eta beraz, lasaiago geratzen direla begiraleak ezagunak direla jakinda; izan ere,



Belauntzako Kultur Etxean elkartzen dira egunotan herritar gaztetxoak. M.SOROA



Leaburuko haurrek herriko elkarte dute Eguberrietako egunetako topagune. M.SOROA

urtero begirale berberak izan daitezkeen saiaten dira antolatzailak.

**Lagun berriak eginez**

Leaburu-Txarama, Orexa, Belauntza eta Gazteluko haurrek gehienbat eskulanak lantzen dituzte ludotekan. Horretaz gain, mota guztietako jolasetan jokatu edota filma ezberdinak ikusten dituzte. Herri bakoitzeko ludotekak bere begiralea izaten du eta ludotekan jorra-

turiko programa begiralearen araberakoa izaten da.

Herrian bertan egon ezezik herriatik kanporako irteerak ere egiten dituzte haur guztiak elkarrekin. Aurtengo Eguberrietan eginiko lehen irteera Belauntzan izan zen pasa den abenduaren 29an. Bertan bilduriko 40 haur inguruk, Kulki taldearen euskal herri kirolez gozatzeko aukera izan zuten. Bigarren irteera gaur egingo dute Txiki Parkera. Guztira, 70 lagun bilduko dira.

Ludoteka ez da, ordea, jolasak eta irteerak egiteko topagune soila. Horretaz haratago, lagun berriak egiteko eta lehendik izandako lagunetik harremana estutzeko ere bada. Izan ere, herri berekoak izan arren, eskola ezberdinetara joaten dira haurrak eta askotan ez dute elkarrekin egiteko aukerarik. Modu honetan, ordea, haurren adiskidetasunaren topagune bihurtzen da ludoteka, elkar ezagutu eta harremanak estutzeko.

JOSE LUIS ARRIZURIETA ▶ AURRERA TALDEKO ENTRENATZAILEA

# «Azken urteetan gauzak asko aldatu dira futbolean»

Jose Luis Arrizurietak urte asko daramatza kirolaren munduan eta bi, Aurrerako entrenatzaile bezala

NAIARA GARZIA

Jose Luis Arrizurietak (Leitza, 1965) betidanik izan ditu kirolak gustuko: urte askotan herri kirolatan ibili da, eta 17 urte zituenean kulturismoaren mundua ezagutu zuen. Orain korrika egiten du eta 5 aldiz parte hartu du Behobiako maratoin.

**Herri kirolak egiteaz gain,**

## MARKAK

«Ez naiz markak gaintzeko asmoz ateratzen. Lehenengo helburua irabaztea eta ongi jokatzea da»

## BURUA

«Fisikoki bi taldeak berdintsuak direnean oso garrantzitsua da buruak jokatzeko duen papera»

## ZALEAK

«Lehenago Larbandon jende gehiago etortzen zen futbola ikustera; orain ez dago apenas zalerik»

## gazteago zinela kulturismoaren munduan ibili zinen. Zer orolimen duzu?

Oso gogorra da. Ez dut beste kirol batean horrelako dieta zorrotzik ikusi. Helburua gorputzeko azala ahalik eta finena edukitzea da, bolumena eta zainak ongi markatzeko.

## Zenbat urte daramatzazu Aurrerako entrenatzaile bezala?

Hau bigarren urtea da. Orain dela 8 urte inguru beste bi urte egon nintzen, batzuetan bigarren entrenatzaile bezala, eta besteetan, berriz, aurretik bezala, bakarka.

## Zergatik hasi zinen entrenatzaile lanetan?

Aurreran 7 urtez jokalaria izan nintzen. Jokatzeko gain beste gauza batzuk egiten hasi nintzen, gero kanpotik etorritako baten ondoan ikasi nuen, eta azkenean jendeak eskatu zidan. Probatzeko hasi nintzen, kirolaren munduan gauza gehienak gustuko baitituz.

## Aurrerako lehenengo fase hau nolako izan da?

Denetatik izan da. Nahiko ongi hasi gara, partidu onak izan ditugu, baita aiseago irabazi beharko genituzkeenak ere. Aukera asko ere galdu ditugu. Bukaeran berriz, azkenean partidetera jokalaria asko batera interesik gabe joaten ziren, abantaila dexente baike neraman. Entrenatzaile ere guxtiago azaldu dira... Hasieran

lehenbizikoak ere egon ginen, baina azkenean lehenengoak (San Cristobal) 8 puntu atera dizkigute.

## San Ignacioren aurka lehenengo partida irabazi eta bigarrenengo galdu zenuten. Zergatik halako aldea?

Fase honetan hiru partida galdu ditugu, aipatu duzuna eta beste bi San Cristobalen aurka. San Ignacioren aurkako partidaren hasieran aukera asko galdu genituen. Horiek ez genituen aprobetxatu eta gero bi akats egin genituen atzean. Partidu askotan taldea zelaiera nola ateratzen den, jarrera, hori oso garrantzitsua da, talde guztien aurkako ez baita berdina izaten.

## Altsasun jokaturako partida bat bereziki gogorra eta oiharkorra izan zen, ez?

Bai, oso gogorra izan da. Zerri xamar ibili ziren eta arbitroak ez badu hasieratik joku hori moztzen eta entrenatzaileak joku zikina bultzatzen badu...

## Horrelako egoera asko ikusi al dituz lehenengo fasean?

Zelai askotan ikusi ditut horrelako entrenatzaileak eta ez dakit hauei titulua nork eman dien. Nire aulkitik besteak zer esaten zuen entzuten nuen: arbitroak botatzen bazaitu ere, «lurrean uzten baduzu ere, emaitza ostikoa...». Gero jokalaria horiek kanpora atera eta nola jokaturako dute? Tristeena zera da, aulki inguruena dena umez beteta zeukala, eta hori umeetatik aditzen baduzu... Maila honetan ez dut portaera hori ulertzen.

## Aurrerako marka bi aldiz hautsi duzue. 8 gol sartu zenituzten lehenengoan, 11 bigarrenengoan.

Ez naiz markak gaintzeko asmoz ateratzen. Lehenengo helburua partida irabaztea eta ongi jokatzea da. Partidu horietan lehenengo 10 minutuetan bizpahiru gol sartu genituen, eta behean dauden taldeak direnez, beheara etortzen dira. Baina kiroltasun osoz jokatuta eta erreakzionatu zuten. Meritu handia izan zuten, galtzen joan arren beraien jokua



N. GARZIA

egiten saiatzen baitziren eta ez zioten joku zikinari ekiten.

## Partidu batean zerk betetzen zaitu, taldek kakar baten aurka gol mordoa sartzea edo talde on bat gailentzea?

Ni pozik gelditzen naiz ahal bada talde onenaren aurka partida irabazten badugu eta joku ona izan bada, are gehiago. Beste talde horien aurka irabaztea ez da gauza bera, gozatu egiten duzu baina badakizu ez dela zure liga. Taldeen kopurua betetzeko ateratzen diren taldeak dira. Gol horien erdiak beste talde baten aurka sartuko bagenitu...

## Entrenatzaile bezala nolako zara?

Nik asko sufritzen dut, zerbait hartzen dudanean ongi egitea gustatzen zait. Horrexegatik ez zait gustatzen entrenamendu saioetara jokalaria gutxi etortzea. Gauza hauek gorroto ditut.

## Lekunberriko Beti-Kozkorren aurka errekorra gaintu ondoren, 2. bueltan markagailua berdin gelditu zen.

Zelaia oso txarra dute, lohitsuak. Taldea ere juxtukoa neukan eta jokalaria arratsalde pasa joan ziren.

## Zu Aurrerako jokalaria zinenetik hona jokalarien jarrera asko aldatu al da?

Azken urteetan gauzak asko aldatu dira futbolean. Oraingo gazteek ez dute lehen bezala sufritu nahi. Orduan berdin zirtzaigun deus ez jokaturak ere, partida irabaztea ateratzen ziren beti, lehertu arte. Fisikoki bi taldeak berdintsuak direnean, oso garrantzitsua da buruak jokatzeko duen papera.

## Herrian Aurrerako duen oharztuna nolako da?

Lehenago Larbandon jende gehiago etortzen zen futbola ikustera. Orain ez dago apenas zalerik.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

## ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldekoahitza.info

## hilberriak ▶

### Lierni Elizaran Aizpuru

(2007ko urtarrilaren 3an hil zen)

Luza bai, luza zure eskua  
ta egin iezadazu argi,  
ilun dagoen bide galdua  
ikusi dezadan garbi

Samaniego ikastetxea

TOLOSAN, 2007ko urtarrilaren 3an

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko urtarrilaren 4a, osteguna ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez arratsaldez beroena **14** hotzena **12**

BIHARKO EGURALDIA

goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA  
(balantza argizteko, harpidetuen egiteko...)

**902 82 02 01**

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Irura.** Trinketean, 17:30etik aurrera, antzerki irakurria, herriko haur eta gaztekoen eskutik.

**ZINEMA**

**Tolosa.** *El corral* filma gaur ikusgai, 17:00etan, Leidorren.  
**Tolosa.** Zine-forum saioa: *Copyin Beethoven* filma izango da ikusgai, 19:15ean eta 21:45ean.

**ERAKUSKETAK**

**Amezketeta.** Hilaren 7ra arte ikusgai eta salgai izango dira Maite Gurrubxaga margolariaren margolanak, Amezketako tabernan.  
**Tolosa.** Maria Jose Rekalderen eskultura erakusketa ikusgai da Aranburu Jauregian urtarrilaren 20ra arte.  
**Tolosa.** Hondakinen Ingurugiro erakusketa ikusgai izango da hil honen 13a bitarte Aranburu Jauregian.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.  
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

**IRRATIA**

**Txolarre irratia**  
(107.5, 101.2 FM)  
11:00-14:00. *Tolosaldeko* ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketak, disko eskainiak...  
18:00-20:00. *Tolosaldeko* ahotsa (errepikapena).  
20:00-21:00. *Irauli* uhinak.  
21:00-23:00. *Bide* okerretik.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Merienda musikatua

**IRURA ▶** Udalak antolatutako Eguberrietako egitarauaren baitan, atzo merienda egin zuten Trinketean eta gero gazteak zein haurrak dantzan aritu ziren



Lehendabizi merienda jateko aukera izan zuten Trinketera gerturatu zirenek; gero etorri zen dantzarako ueña. I. GARCIA

**ERREDAKZIOA**

**T**rinketea dantzaleku batean bihurtu zen atzo arratsaldean. Irurako Udalak antolatutako Eguberrietako egitarauaren baitan, atzo meriendaren txanda izan zen. Eta indar nahiko hartu on-

doren, musika eta dantzaren ueña etorri zen. Txokolatea, urdaiazpikoa, patatak, zukuak, freskagarriak... Jatekoa eta edatekoa ez zen faltan bota. Haurrek eta gazteek ez ezik, gurasoek ere dastatu zituzten mahai gainean jarritakoak. Baina txikiak

gehien itxaron zuten ueña dantzaldiarena izan zen. Gazteak aritzen diren zenbait gazte animatzaile lana hartu zuten eta koreografiak eginez eta guzti, Trinketeko guztiak dantzan jarri zituzten. Haurrek gaztetxoei begiratzen zieten, haiek imitatu asmoz. Zenbait

guraso ere festan parte hartze-  
ra animatu ziren.  
Gaur ere izango da ekitaldirik. Trinketea izango da berriro eskenatokia. Oraingo honetan, antzerkiak hartuko du musikaren lekukoa. 17:30ean herriko haurrek eta gaztetxoek antzerki irakurria eskainiko dute.

**AGURRAK ▶**

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZaren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZaren egoitza Leitzaan Udaletxeko bulegoa

**hitza** agurren tartea **Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...**